TABAKALERA

# PROGRAMA

# URTARRILA OTSAILA MARTXOA

2017

Donostia / San Sebastián

tabakalera.eu

TABAKALERA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

# URTARRILA OTSAILA MARTXOA

KULTURA GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO ZENTROA

# AURKIBIDEA


4. EGUTEGIA

12. ERAKUSKETAK

20. ZINEMA

30. HIRIKILABS

36. HEZKUNTZA

44. UBIK. Sorkuntza Liburutegia

50. SORTZAILEEN GUNEA

54. OHARRAK

# SARRERA

Urtea, erakusketa, jarduera-programa... estreinatzen ditugu. Bide honetan guztian zu lagun izateko gogoa, ordea, ez da berria izango.

Hurrengo hilabeteetan, ***Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia*** erakusketak gizarte garaikideari, gure egunerokoari, definitzen eta baldintzatzen gaituzten ohitura, substantzia eta dinamika horiei buruz gogoeta egiteko gonbita egingo digu. Erakusketa hori jarduera-programa paralelo batez osatuko dugu. Jardueren artean izango ditugu ***Pikutara!***, agroekologia hezkuntza-prozesuekin lotuko duen irakasleentzat topaketa.

***Labo,*** Clarmont-Ferrandeko film laburren jaialdiko sail esperimentala, gure zinemetara itzuliko da martxoaren hasieran. Programazio horrek, azken urteotan egin dugun bezala, ***Kimuak*** programako film laburrak bilduko ditu, eta, lehen aldiz, ***Donostia Zinemaldiko Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketako*** (EIECINE) film labur irabazleak. Gainera, gure pantailaren fokua Jean-Marie Straub eta Danièle Huillet zinemagileengan jarriko dugu Euskadiko Filmategiarekin elkarlanean.

Ehungintza aurtengo berritasunetako bat da **Hirikilabs**en. Gainera, hezkuntza taldearekin batera, jolas-espazioak birpentsatzeko hainbat familiek abiarazitako proiektu kolektiboaren, ***0-6 Gunea***ren, irekiera ospatuko dugu. Halaber, ***Hirikilabs Plaza***ren zazpigarren deialdia zabalik dago. Bidali zure proiektua!

Ubik sorkuntza liburutegiak urtebete egingo du martxoan, eta 2017a programa zabalduz eta sendotuz hasiko du: ***Outline. Pentsamendu kritikoa*** topaketaren jarraipen gisa, ***Esploratzaileak. Pentsamendu kritikoari buruzko irakurketa-taldea*** jaio da; eta ***Atlas*** autoeditazio-topaketak, orain, lantegi bihurtu dira. Zain dituzu.

Gainera, txikiek eta nagusiek elkarrekin gozatzeko espazioa izaten jarraituko dute ***Kamaleoiak gara!*** programan. Eta bertsio guztietan! Kamaleoiak zineman, Kamaleoiak erakusketa aretoan, kanpamentuetan, zuzeneko arte-programan... Eta publiko guztientzat, era berean, ***JoLabs*** eta ***Do it in Family***, sormena eta ikasketa kooperatiboa garatzeko formatu libreko lantegiak.

2017 honetan... #gozatutabakalera

EGUTEGIA








# EGU-
# TEGIA

*Gogoratu eraikin osoko programa hileko agendan, gure web orrian eta sarrerako paneletan aurkituku duzula.*

# URTARRILA

## 1
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)

## 3
*asteartea*

· **KAM>PAMENTUAK: COLLAGEA ETA AKZIOA** (or. 38)

## 4
*asteazkena*

· **KAM>PAMENTUAK: COLLAGEA ETA AKZIOA** (or. 38)
· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **BISITA SOLASALDIA** (or. 14)

## 5
*osteguna*

· **KAM>PAMENTUAK: COLLAGE Y ACCIÓN** (or. 38)

## 6
*ostirala*

· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 7
*larunbata*

· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 8
*igandea*

· **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 0-99** (or. 39)
· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)

## 10
*asteartea*

· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)
· **TESTU-INGURUAN.** ARTE GARAIKIDERA HURBILKETA (or. 15)
· **NIRE MUNDUA. HAURRENTZAKO FILOSOFIA** (or. 46)

## 11
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)

## 12
*osteguna*

· **KORAPILOAK. BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA** (or. 46)
· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)

## 13
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)

## 14
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)
· **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 48)

## 15
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 1)
· **KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99** (or. 39)

## 17
*asteartea*

· **HIRIKIKAS.** EHUNGAILUA: NOLA ERAIKI ETA ERABILI (or. 33)

## 18
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **HIRIKIKAS.** EHUNGAILUA: NOLA ERAIKI ETA ERABILI (or. 33)
· **BISITA SOLASALDIA** (or. 14)

## 19
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)

## 20
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)

## 21
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA** (or. 19)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)
· **JOLABS** (or. 47)
· **IBILALDI ARRISKUTSU BAT** (or. 14)

## 22
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)

## 24
*asteartea*

· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)
· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITAL ETA TEKNOLOGIAREKIN ESPERIMENTATZEN (or. 33)

## 25
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **VISITA EXPERIMENTAL** (or. 15)
· **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK** (or. 47)
· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITAL ETA TEKNOLOGIAREKIN ESPERIMENTATZEN (or. 33)

## 26
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)
· **UBIK BISITARIAK. EROMECÁNICA.** LA ERÓTICA DE LA MAQUINARIA SOCIAL (or. 46)

## 27
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **HIRIA HACKEATU** (or. 42)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 46)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 28
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **GUTUN ZURIAK:** ROTTERDAMGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (IFFR LIVE EVENT) (or.27)
· **KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0- 99.** LUR AWAY (orr. 38-39)
· **ESPLORATZAILEAK.** PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA (or. 47)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)

## 29
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)

# OTSAILA

## 1
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **BISITA SOLASALDIA** (or. 14)

## 2
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)

## 3
*ostirala*

· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)

## 4
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **JOLABS** (or. 47)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 5
*igandea*

· **GUTUN ZURIAK:** FIPA. FESTIVAL INTERNATIONAL DE PROGRAMMES AUDIOVISUELS (BIARRITZ) (or. 28)
· **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 0-99** (or. 39)
· **PERFORMANCEA: KORRIKA EGIN ALA HIL** (or. 14)

## 7
*asteartea*

· **HIRIKIKAS:** PROGRAMAZIO SORTZAILEA P5JS BIDEZ. HASTAPENA (or. 33)

## 8
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **PIKUTARA! AGROEKOLOGÍA ETA HEZKUNTZA** (or. 42)

## 9
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)
· **PIKUTARA! AGROEKOLOGÍA ETA HEZKUNTZA** (or. 42)

## 10
*ostirala*

· **JOLABS: INFORMATIKA DESENTXUFATUA: PROGRAMAZIOA IKASTEN** (or. 32)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)

## 11
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 48)
· **KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0- 99.** ¿Y POR QUÉ JOHN CAGE? (or. 38)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)
· **FOCOS: LIZZIE BORDEN** (orr. 25-26)

## 12
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)
· **FOCOS: LIZZIE BORDEN** (orr. 24-25)

## 14
*asteartea*

· **HIRIKIKAS:** PROGRAMAZIO SORTZAILEA P5JS BIDEZ. HASTAPENA (or. 33)
· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)
· **NIRE MUNDUA. HAURRENTZAKO FILOSOFIA** (or. 46)

## 15
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)

## 16
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)
· **ATALAK XXIX** (or. 52)

## 17
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **J.S. BACH: SCHWEIGT STILLE, PLAUDERT NICHT, BWV 211 “KAFEAREN KANTATA”** (or. 16)
· **BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA** (or. 16)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 18
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **JOLABS** (or. 47)
· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)

## 19
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA**(or. 21
· **KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99** (or. 39)

## 21
*asteartea*

· **HIRIKIKAS:** ARCADE JOKO MAKINA ERAIKIZ -DONOSTITRON II (or. 33)

## 22
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK** (or. 47)

## 23
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VI.** (or. 35)
· **HIRIKILABS PLAZA VII:** PROIEKTU IREKIEN AURKEZPEN PUBLIKOA (or. 35)

## 24
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **HIRIA HACKEATU** (or. 42)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 46)

## 25
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)
· **ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA** (or. 47)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)

## 26
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA**(or. 21

## 28
*asteartea*

· **HIRIKIKAS:** ARCADE JOKO MAKINA ERAIKIZ -DONOSTITRON II (or. 33)
· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)

# MARTXOA

## 1
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **BISITA SOLASALDIA** (or. 17)
· **ASTERIK LABURRENA. EIECINE** (or. 22)

## 2
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VII.** (or. 35)
· **ASTERIK LABURRENA. KIMUAK** (or. 22)
· **JAKINTZA ETA SENTIBERATASUN ESTETIKOA. SANTIAGO RAMÓN Y CAJALEN MARRAZKIAK** (or. 16)

## 3
*ostirala*

· **ASTERIK LABURRENA. LABO** (or. 22)
· **LAB 01: SUPER 8 MM-KO TAILERRA:** KAMERA -FILMATZEA - ERREBELATZEA -EDITATZEA – PROIEKTATZEA (or. 29)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)

## 4
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** ( or. 32)
· **JOLABS** (or. 47)
· **ASTERIK LABURRENA. LABO** (or. 22)
· **LAB 01: SUPER 8 MM-KO TAILERRA:** KAMERA -FILMATZEA - ERREBELATZEA -EDITATZEA – PROIEKTATZEA (or. 29)
· **AHO BETE AMETS. SORTU, KANTATU, IRUDIKATU, DANTZATU** (or. 48)

## 5
*igandea*

· **KAMALEOIAK GARA! ZINEMA 0-99** (or. 39)
· **ASTERIK LABURRENA. LABO** (or. 22)
· **LAB 01: SUPER 8 MM-KO TAILERRA:** KAMERA -FILMATZEA - ERREBELATZEA -EDITATZEA – PROIEKTATZEA (or. 29)

## 7
*asteartea*

· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: 3D INPRIMAKETA (or. 34)
· **TESTU-INGURUAN.** ARTE GARAIKIDERA HURBILKETA (or. 17)

## 8
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)

## 9
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VII.** (or. 35)

## 10
*ostirala*

· **JOLABS: OIHALEKIN SORTZEN** (or. 32)
· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)

## 11
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or.32)
· **HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA** (or. 48)
· **FOCOS: LIZZIE BORDEN** (orr. 24-25)
· **AHO BETE AMETS. SORTU, KANTATU, IRUDIKATU, DANTZATU** (or. 48)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)

## 12
*igandea*

· **PERFORMANCE: MUXUA DA MEZUA** (or. 17)
· **GUTUN ZURIAK:** LOCARNOKO (SUITZA) NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (or. 28)

## 14
*asteartea*

· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: 3D INPRIMAKETA (or. 34)
· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)
· **NIRE MUNDUA. HAURRENTZAKO FILOSOFIA** (or.46)

## 15
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **BISITA SOLASALDIA** (or. 17)

## 16
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VII.** (or. 35)

## 17
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **ZORIONAK UBIK!** (or. 48)

## 18
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **JOLABS** (or. 47)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)
· **AHO BETE AMETS. SORTU, KANTATU, IRUDIKATU, DANTZATU** (or. 48)
· **ZORIONAK UBIK!** (or. 48)

## 19
*igandea*

· **ARO ATOMIKOA** (or. 21)
· **KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99** (or. 39)
· **ZORIONAK UBIK!** (or. 48)

## 21
*asteartea*

· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: LASER MOZKETA (or. 34)

## 22
*asteazkena*

· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)

## 23
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VII.** (or. 35)

## 24
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **ZINEMA GARAIKIDEA** (or. 20)

## 25
*larunbata*

· **JOLABS. DO IT IN FAMILY** (or. 32)
· **GUTUN ZURIAK:** LOCARNOKO (SUITZA) NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (pág 28)
· **KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0- 99.** MARTINAK BERE ISTORIOA AURKITU ZUENEKOA (or. 39)
· **ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA** (or. 47)
· **AHO BETE AMETS. SORTU, KANTATU, IRUDIKATU, DANTZATU** (or. 48)
· **BISITA HISTORIA, OROIMENAETA LANA.** TABAKALERA EZAGUTU (or. 18)

## 26
*igandea*

· **GUTUN ZURIAK:** LOCARNOKO (SUITZA) NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (or. 28)

## 28
*asteartea*

· **HIRIKIKAS.** FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA: LASER MOZKETA (or. 34)
· **NIK ERE NAHI DUT!** (or. 47)

## 29
*asteazkena*

· **ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK** (or.47)
· **ASTEAZKENETAN UBIKEN** (or. 48)
· **VISITA EXPERIMENTAL** (or. 17)

## 30
*osteguna*

· **HIRIKILABS PLAZA VII.** (or. 35)
· **GIZA LIBURUTEGIA** (or. 49)

## 31
*ostirala*

· **FOKUA: JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET** (orr. 25-26)
· **HIRIA HACKEATU** (or. 42)
· **0-6 GUNEA** (or. 43)
· **XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA** (or. 46)

ERAKUSKETAK

# BIZIGARRIAK

# ESTIMULANTES

# STIMU

ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA | CIRCULACIÓN Y EUFORIA | CIRCULATION AND EUPHORIA |

# ERAKUS-KETAK

Aurkibidea

**ORGANISMO BIZIDUNEN AGENTZIA**
- · LOTUTAKO EKINTZAK
- · HEZKUNTZA PROGRAMA

**BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA**
- · LOTUTAKO EKINTZAK
- · HEZKUNTZA PROGRAMA

**MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA**
- · LOTUTAKO EKINTZAK

**Erakusketa aretoaren ordutegia:**
Asteartetik ostegunera: 12:00 - 20:00
Ostirala: 12:00 - 21:00
Larunbata: 10:00 - 21:00
Igandea eta jaiegunak: 10:00 - 20:00

**2016/10/21 > 2017/02/05**

Erakusketa

# ORGANISMO BIZIDUNEN AGENTZIA

Komisarioa: ***Pauline Doutreluingne.***
Artistak: ***Lara Almarcegui, Anne Duk Hee Jordan, Tue Greenfort, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum, Esther Kokmeijer, Nader Koochaki, Maider Lopez, Gerard Ortín, Tere Recarens, Koenraad Van den Driessche, Johansons Voldemars, El Conde de Torrefiel.***
Erakusketa aretoa

*Organismo bizidunen agentzia* erakusketa Pauline Doutreluingne komisarioak Tabakaleran garatu duen erresidentziaren emaitza da. Pauline 2015eko udazkenean egoiliar bezala egon zen Tabakalerak martxan jarri zuen komisarioen deialdiaren emaitza gisa.

*Organismo bizidunen agentzia* erakusketak ekosistema desberdinen eta litosfera, atmosfera, biosfera eta hidrosferaren artean ematen diren elkarrekintza eta komunikazioak aztertzen ditu.

Hauei erantzuna emanez, proiekturako apropos ekoiztu diren lanak eta jada eginak zeudenak elkarren ondoan jartzen ditu, eskultura sozial bizi bat osatuz, etengabe zabaltzen den formatu baten antzera, Tabakalerako hormak hiri, natur eta 'online' ingurugirora irekiko dira.

Elkarlanean: Goethe Institut, Mondriaan Foundation eta Latvian Culture Foundation RIGA.

## LOTUTAKO EKINTZAK

URTARRILAK **21** (larunbata)

Ibilaldi gidatua

### IBILALDI ARRISKUTSU BAT

***Koenraad Van den Driesche***
**11:00** / Iraupena: 90'
Izen-ematea aldez aurretik.
Tabakaleratik abiatuko da

Van den Driesche geologoak gidaturik, Donostiako bilakaera geologikoaz jabetuko gara.

OTSAILAK **5** (igandea)

Performancea

### KORRIKA EGIN ALA HIL

***Nader Koochaki***
**17:00**
Erakusketa aretoa

Kilian Jornet-en *Korrika egin edo Hil* liburua irakurtzea proposatzen du Nader Koochaki-k, ahots ozenez eta ahalik eta lasterren, hasieratik amaiera arte. Irakurketa bakarra da, ekintza modukoa, probasaiorik edo helbururik gabea.

## HEZKUNTZA PROGRAMA

URTARRILAK **4, 18,** OTSAILAK **1** (asteazkena)

Bisita

### BISITA SOLASALDIA

**18:00 ES / 19:00 EU**
*Zeinu Hizkuntzako Interpretazio zerbitzua eskuragai aldez aurretik eskatuta.
Izen-ematea aldez aurretik.
Erakusketa aretoa

*Bisita solasaldien* bitartez Tabakalerako erakusketetako piezetara, planteatutako gaietara eta komisarioen diskurtsoetara hurbiltzea proposatzen dugu. Arte

garaikidearekin harreman zuzena egiteko ibilbideak dira hauek, eta interesa duen edozein pertsonak parte har dezake bertan.

URTARRILAK **10** (asteartea)

Ikasketa taldea

## TESTU-INGURUAN. ARTE GARAIKIDERA HURBILKETA

**18:00 EU / ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

*Interesa duen edozein pertsonari zuzendua. Ez da beharrezkoa arte garaikidean aldez aurretiko ezagutzarik izatea.*

*Testu-inguruan* arte garaikidean interesa duen edonori zuzendutako programa bat da, Tabakalerako erakusketekin batera funtzionatzen duena. Saioak hilabetean behin egiten dira eta haietan erakusketen edukietan sakontzen da testu, artelan edo pelikulen bitartez. Helburua, pixkana-pixkana geure burua arte garaikideari dagozkion gaietan heztea da.

URTARRILAK **25** (asteazkena)

Bisita

## BISITA ESPERIMENTALA

*Mikel Agirre*

**18:30**

Izen-ematea aldez aurretik.

Erakusketa aretoa

Oraingo honetan Mikel Agirre gonbidatu dugu erakusketan barrena ikuspegi berri bat eskain diezagun. Agirrek hezkuntza agroekologikaren inguruan ikertu eta lan egiten du eta Uliako Lore Baratzean partaide aktiboa da besteak beste.



***IBILALDI ARRISKUTSU BAT, Koenraad Van den Driesche***

**2017/02/17 > 2017/06/11**

Erakusketa

# BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA

Komisarioa: ***Oier Etxeberria.***
Aholkulariak: ***Max Jorge Hinderer Cruz*** eta ***Pablo Lafuente.***
Artistak: ***Lorea Alfaro, Ibon Aranberri, Erick Beltrán, Alice Creischer, Ines Doujak&John Barker, Fernando Palma.***
Ondorengo artisten obrekin: ***Jorge Oteiza, Maruja Mallo, Henri Michaux, William Hogarth, Santiago Ramón y Cajal*** eta ***Nicolas de Lekuona*** besteak beste.
Erakusketa aretoa

Erakusketak 2015eko abenduan, Tabakaleran, izenburu berarekin martxan jarritako hitzaldi, mintegi eta tailerren programa du oinarri. Proiektu honek abiapuntuan, XV mendetik aurrera ozeanoz gaindiko esplorazio-bidaien ondorioz planeta osora hedatutako bizigarriak ditu: esate baterako, kafea, azukrea, kakaoa, tabakoa eta opioa. Erakusketak, bizigarriak mugiarazten dituen zirkulazioaren hiru alderdi espezifikori heltzen dio. Era berean, gizakion ekintza eta bizitza egituratzen eta baldintzatzen dituzte planetan alderdi horiek: esate baterako, giza organismoaren zirkulazioa, merkataritzako zirkulazio globala eta, lurrekoa gaindituz, zirkulazio kosmiko izendatzen duguna. Zentzumen-zirkuitu bat da, programak berak sortutako dokumentazioarekin osatua, eta artxibo eta museotatik datozen materialekin lotzen ditu artelanak. Mugimenduok esparrutzat hartuta, erakusketak kontzientziaren eta errealitatearen, mozkortasunaren eta kapitalismoaren, desiraren eta arrazoiaren artean ezartzen diren loturak aztertzen ditu.

## LOTUTAKO EKINTZAK

OTSAILAK **17** (ostirala)

Kontzertua

### J.S. BACH: SCHWEIGT STILLE, PLAUDERT NICHT, BWV 211 "KAFEAREN KANTATA".

***Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren ganbera-laukotea.***
**19:00 (25')**
Plaza

*Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* erakusketaren inaugurazioari Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren lankidetzaz emango zaio hasiera. Ganbera-laukote batek interpretatuko du Johann Sebastian Bachek kafeari zion maitasuna adierazten duen pieza historikoa.

OTSAILAK **17** (ostirala)

Inaugurazioa

### ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA

**19:30**
Erakusketa aretoa

MARTXOAK **2** (osteguna)

Hitzaldia

### JAKINTZA ETA SENTIBERATASUN ESTETIKOA. SANTIAGO RAMÓN Y CAJALEN MARRAZKIAK

***Ricardo Martínez Murillo.***
19:00
Z aretoa

Ricardo Martínez Murillo, Ikerkuntza Zientifikoetako Kontseilu Nagusiko neurozientzia translazionaleko saileko arduraduna, Santiago Ramón y Cajalen marrazkien inguruan arituko da, baita hark zientziaren eta giza zientzien artean ezarri diren mugak gainditzeko zuen ahalmenaren inguruan ere.

MARTXOAK **12** (igandea)

Performancea

## MUXUA DA MEZUA

**18:00 EU /ES**

Patioa

*Muxua da mezua* performance sozialaren bitartez, ikus-entzunezko, eszenako, poesiako eta sukaldaritzako baliabideak mobilizatu nahi dira. Mugaritz jatetxeko sormen-taldeak ekitaldirako esklusibotasunez diseinatutako eraztun, tatuaje, polboroi pikante, mihi eta musu erako litxarreria sinesgaitzen sorta bat erabiliz, jatearekin, hitz egitearekin, abestearekin eta muxu ematearekin lotutako gizarte-arauekin esperimentatzea du helburu. Horrela, zeharkatzen dugun eta gaituen erregimen biopolitikoko espazio esperantzagarrienetakoa bihurtzeko ahoa.

Jarduera hau Basque Culinary Center eta Mugaritz jatetxeak antolatutako *Sukaldeko Solasaldiak* kongresuarekin lankidetzan gauzatuko da.

## HEZKUNTZA PROGRAMA

MARTXOAK **1, 15** (asteazkena)

Bisita

## BISITA SOLASALDIA

**18:00 – 19:00 ES / 19:00 – 20:00 EU**

*Zeinu Hizkuntzako Interpretazio zerbitzua eskuragai aldez aurretik eskatuta.

Izen-ematea aldez aurretik.

Erakusketa aretoa

*Bisita solasaldien* bitartez Tabakalerako erakusketetako piezetara, planteatutako gaietara eta komisarioen diskurtsoetara hurbiltzea proposatzen dugu. Arte garaikidearekin harreman zuzena egiteko ibilbideak dira hauek, eta interesa duen edozein pertsonak parte har dezake bertan.

MARTXOAK **7** (asteartea)

Ikasketa taldea

## TESTU-INGURUAN. ARTE GARAIKIDERA HURBILKETA

**18:00 EU / ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

*Interesa duen edozein pertsonari zuzendua. Ez da beharrezkoa arte garaikidean aldez aurretiko ezagutzarik izatea.*

*Testu-inguruan* ziklo berri bati ekingo diogu erakusketa berriarekin batera. Hilabetean behin elkartzen gara Tabakalerako erakusketen edukietan sakontzeko testu, artelan edo pelikulen bitartez. Helburua, pixkana-pixkana geure burua arte garaikideari dagozkion gaietan heztea da.

MARTXOAK **29** (asteazkena)

Bisita

## BISITA ESPERIMENTALA

*Oier Etxeberria*

**18:30**

Izen-ematea aldez aurretik.

Erakusketa aretoa

Bisita hau Oier Etxeberria, erakusketaren komisarioak lagunduta egingo dugu. Hori aprobestatuz, erakusketak izan dituen lan prozesu ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu. Etxeberria Tabakalerako Proiektu artistikoen arduraduna ere bada eta berak koordinatu du erakusketa honen izen bera daraman programa publikoa ere.

**2017**

Erakusketa

# MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA

**Urtarrila: 12. kapitulua.**
**Otsaila – Martxoa: kapitulu guztiak.**
**Koordinazioa: Marion Cruza, Pablo Marte**

Sotoa

2015eko otsailaz geroztik bi artistekin, tabako fabrikako langile ohien talde batekin eta aktoresa talde batekin lan egin dugu *Mañana Goodbye* proiektuan. Hamabi kapituluko serie bat da, eta garai bateko tabako fabrika egungo Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa bihurtu zeneko ekoizpen ereduaren aldaketa aztertzen du. Airean bi galdera garrantzitsu: lanari dagokionean, zer behar dugu iraganetik? Eta nola eta nondik hitz egin memoriaren inguruan? *Lantegitik atera eta gero* izenburua daraman jarduera programa batek lagun egiten dio proiektuaren bigarren faseari.

*Mañana Goodbye* Sotoan bisitatu daiteke, bertan baitago ikusgai ikus-entzunezko instalazio moduan.



***MAÑANA GOODBYE***

## LOTUTAKO EKINTZAK

URTARRILAK **21** (larunbata)
Proiekzioa + elkarrizketa

### MAÑANA GOODBYE SERIEAREN PROIEKZIOA

***Marion Cruza, Pablo Marte + tabako fabrikako langile ohiak.*** (250')
**12:00 - 14:00 eta 16:30 – 20:30**
Zinema. 1 aretoa

Saio hau 2015eko otsailean hasitako lan prozesuaren itxiera bezala planteatzen da. Goizean lehen sei kapituluak ikusiko ditugu eta arratsaldean hurrengo seiak. Serie osoaren proiekzioaren ondoren proiektuan parte hartu duten artista eta kolaboratzaileen arteko solasaldia izango da.

URTARRILAK **14, 28**, OTSAILAK **11, 25**
MARTXOAK **11, 25** (larunbatak)
Bisita

### HISTORIA, OROIMENA ETA LANA
### Tabakalera ezagutu

**11:00 EU / 12:00 ES**
*Zeinu Hizkuntzako Interpretazio zerbitzua eskuragai aldez aurretik eskatuta. Izen-ematea aldez aurretik.
Informazio puntua.

Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak hiriko tabako fabrikan dauka egoitza, 1913an sortu-tako eraikinean. Bisitaldiok honako ardatz hauek lantzen dituzte besteen artean: *Mañana Goodbye* proiektua, espazio arkitektonikoaren historia eta berezitasuna, bertako langileen oroipen eta esperientziak, eta birmoldaketaren ostean sortutako gune eta erabilera berriak.

Lan-prozesua

### ELKARREKIN LAN EGITEN JARRAITZEN DUGU?

*Mañana Goodbye* prozesuan partekatutako esperientzietatik abiatuta, espazio bat abiarazi dugu Tabakalerako egungo eta lehenagoko langileentzat. Proiektu honen bidez dagoeneko sortutako lana eta harremanak bilduko ditugu, eta aldi berean gurekin batera leku honen iraganaz eta orainaz gogoeta egiten jarraitu nahi duten aliatu berriak bilatuko ditugu.

Prozesu honetan tabako fabrikako langile ohiak gonbidatzen ditugu bizitzako esperientziak eta memoria partekatu eta trukatzeko.

Parte hartu edo informazio gehigarria nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: hezkuntza@tabakalera.eu

**Hurrengo saioak:**
- **Urtarrilak 26**
- **Otsailak 23**
- **Martxoak 23**



*La muerte de Louis XIV,*
Albert Serra, 2016.



20 / 21

# ZINE-
# MA

Aurkibidea


**ZIKLOAK**

- ZINEMA GARAIKIDEA.
- ARO ATOMIKOA.
- ASTERIK LABURRENA.

**FOKUA**

- JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET.
- LIZZIE BORDEN.

**GUTUN ZURIAK**

- LOCARNOKO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (SUITZA).
- ROTTERDAMGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA - LIVE EVENT (HERBEHEREAK).
- FIPA. FESTIVAL INTERNATIONAL DE PROGRAMMES AUDIOVISUELS (BIARRITZ).

**KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN**

**HORMA**

- NATALIA MARÍN.
- JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET.
- FILIPA CESAR.

**LABORATEGIAK**

- SUPER 8 MM-KO TAILERRA.

# ZIKLOA:
## ZINEMA GARAIKIDEA

Egile-zinema, nazioarteko zinema-jaialdien zirkuituko zinema, banaketa-enpresa independenteen zinema.

URTARRILAK **6** (ostirala)
**19:00**
***La jeune fille sans mains,*** Sébastien Laudenbach, Frantzia, 2016, 76'.

URTARRILAK **7** (larunbata)
**19:00**
***La muerte de Louis XIV,*** Albert Serra, Frantzia-Portugal-Espainia, 2016, 115'.
Zuzendariak aurkeztutako emanaldia.

URTARRILAK **14** (larunbata)
**19:00**
***Correspondencias,*** Rita Azevedo Gomes, Portugal, 2016, 145'.

URTARRILAK **21** (larunbata)
**12:00 - 14:00 / 16:30 - 20:30**
Proiekzioa + Elkarrizketa
***Mañana Goodbye. Elkarrekin lan egiten duen emakume taldea,*** Marion Cruza eta Pablo Marte, Espainia, 2016, 250'.
**12:00 - 14:00 >** 1-6 kapituluak.
**16:30 - 19:30 >** 7-12 kapituluak.
**20:00 - 21:00 >** Proiektuan parte hartu duten artista eta kolaboratzaileeen arteko elkarrizketa.
+ info 18-19 orr.

URTARRILAK 2**7** (ostirala)
**22:00**
***La muerte de Louis XIV,*** Albert Serra, Frantzia-Portugal-Espainia, 2016, azpitituloak euskeraz, 115'.

OTSAILAK **4** (larunbata)
***Zabaltegi-Tabakalera saioa:*** saritutako filmak.

**18:00**
Z aretoa
Thorsten Schüte alemaniar zuzendariaren hitzaldia/eskola magistrala; hau da, Frank Zappa musikari bikainari buruz egindako filmari esker Zabaltegi-Tabakalera sariaren irabazle izandakoarena.

**20:00**
***La disco resplandece,*** Chema García Ibarra, Espainia/Turkia, 2016, 12'.
***Eat That Question: Frank Zappa in His Own Words,*** Thorsten Schüte, Frantzia-Alemania, 2016, 93'.
Zuzendariak aurkeztutako emanaldia.

OTSAILAK **10** (ostirala)
**19:00**
***Apología/Antología: Bidaia bat Espainiako bideogintzan barrena. Euskal kapitulua.***

OTSAILAK **17** (ostirala)
**22:00**
***Eat That Question: Frank Zappa in His Own Words,*** Thorsten Schüte, Frantzia-Alemania, 2016, azpitituloak euskeraz, 93'.

OTSAILAK **25** (larunbata)
**19:00**
***El futuro perfecto,*** Nele Wohlatz, Argentina, 2016, 65'.

MARTXOAK **18** (larunbata)
**19:00**
***Safari,*** Ulrich Seidl, Austria, 2016, 90'.

MARTXOAK **24** (ostirala)
**22:00**
***Safari,*** Ulrich Seidl, Austria, 2016, azpitituloak euskeraz, 90'.

# ZIKLOA:
## ARO ATOMIKOA

Ikasturte berriari hasiera ematera goaz. Aurtengoan ere, zinemaren historian haurtzaroko, nerabezaroko eta gaztaroko imajinarioek daukaten lekua aztertuko dugu. Programaren barruan, denetarik izango dugu: oraintxe zinema-jaialdietan dabiltzan filmen estreinaldiak, klasikoen berrikuspenak, eta, hilean behin, *ZOOM Bideo Laborategia* taldeak programatutako eta aurkeztutako saio bat. *Zoom* taldea, hain zuzen ere, hainbat nerabek eta Tabakalerako Hezkuntza saileko lantaldeak osatzen dute.

URTARRILAK **1** (igandea)
**18:00**
***Los olvidados,*** Luis Buñuel, Mexiko, 1950, 88'.

URTARRILAK **8** (igandea)
**18:00**
***Mañana a esta hora,*** Lina Rodríguez, Kolonbia-Kanada, 2016, 85'.

URTARRILAK **15** (igandea)
**18:00**
***Dae gi eui wang (El rey de los cerdos),*** Yeon Sang-ho, 2011, Hego Korea, 97'.

URTARRILAK **22** (igandea)
**18:00**
***Las Lindas,*** Melisa Liebenthal, Argentina, 2016, 77'.

URTARRILAK **29** (igandea)
**18:00**
***ZOOM** Bideo Laborategia* **taldeak programatutako saioa**

OTSAILAK **12** (igandea)
**18:00**
***Elephant,*** Gus Van Sant, AEB, 2003, 81'.
***Elephant,*** Alan Clarke, Erresuma Batua, 1989, 37'.

OTSAILAK **19** (igandea)
**18:00**
***Manuel de Libération,*** Alexander Kuznetsov, Frantzia, 2016, 77'.

OTSAILAK **26** (igandea)
**18:00**
***ZOOM** Bideo Laborategia* **taldeak programatutako saioa**

MARTXOAK **19** (igandea)
**18:00**
***La pivellina (Non è ancora domani),*** Tizza Covi, Rainer Frimmel, Italia, 2009, 100'.



***Las Lindas,*** Melisa Liebenthal, 2016

MARTXOAK **1 > 5**

# ZIKLOA:
## ASTERIK LABURRENA

Aurten martxoa izango da Clermont-Ferrandeko film laburren jaialdiko LABO sail esperimentalaren hilabetea. Azken urteetan egin dugun moduan, *Kimuak* katalogoko film laburrak izango ditugu programazioan, eta, aurten lehen aldiz, baita Donostia Zinemaldiko Zinema Ikasleen Nazioarteko Topaketa (EIECINE) irabazi zuten film laburrak ere.

Astea osatzeko, gainera, zinema esperimentalari buruzko gure tailerretako bat izango dugu; oraingoan, S-8mm hastapenei buruzko ABC batekin, ikasteko nola filmatu oinarrizko-etxeko-amateur-familiako formatuan, eta nola errebelatu.

+info eta izen-emateak: www.tabakalera.eu

MARTXOAK **1** (asteazkena)
**19:00**
### EIECINE
**Film labur irabazleen proiekzioa (66').**

***Étage X / Floor,*** Francy Fabritz, DFFB-Berlin Film Conservatory, Alemania, 2016, 14'.
***Umpire,*** Leonardo Van Dijl, LUCA School of Arts, Belgika, 2016, 16'.
***24º 51' Latitud Norte,*** Carlos Lenin Treviño, Centro Universitario de Estudios Cinematográficos CUEC – UNAM, Mexiko, 2016, 27'.
***A quien corresponda,*** Valeria Fernández, Universidad del Cine, Argentina, 2016, 9'.

Saio hau Orona enpresaren Zinetek programaren parte da eta Donostia Zinemaldiarekin lankidetzan antolatutzen da.

MARTXOAK **2** (osteguna)
**19:00**
### KIMUAK
**2016ko Kimuak katalogoan hautatutako film laburren proiekzioa (93').**

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskadiko Filmategiaren programa bat da Kimuak, eta euskal film laburrak babestea eta zabaltzea du helburu.

***Beti bezperako koplak,*** Ageda Kopla Taldea, 2016, 5'.
***Caminan,*** Mikel Rueda, 2016, 14'.
***False Flag,*** Asier Urbieta, 2016, 11'.
***Gure Hormek,*** Las Chicas de Pasaik (Maria Elorza eta Maider Fernández), 2016, 15'.
***Hileta,*** Kepa Sojo, 2016, 20'.
***Ihesa,*** Alejandro Díaz Castaño, 2016, 15'.
***Renovable,*** Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño, 2016, 13'.

MARTXOAK **3, 4, 5**
(ostirala, larunbata, igandea)
**03/03 > 19:00**
**04/03 > 19:00 eta 21:00**
**05/03 > 18:00**
### LABO
LABOn parte hartu duten film laburren proiekzioa. LABO Clermont-Ferrandeko (Frantzia) film laburren jaialdi ospetsuko sail arriskatu eta esperimentalena da.

Laster tituloei eta ordutegiei buruzko informazio gehiago.

# FOKUAK:
## JEAN-MARIE STRAUB ETA DANIÈLE HUILLET

Honako atzera begirako hau aurkezten dizuegu Tabakalerak eta Euskadiko Filmategiak: *Iraultza egitea da kontu oso zahar baina ahaztuak berriz bere lekuan jartzea*. Hamaika saio bilduko dituen atzera begirako honetan, Jean-Marie Straub eta Danièle Huillet zinemagileen lana izango da ardatza. Chema Gonzálezek eta Manuel Asínek komisariatutako foku bat da, eta Reina Sofía Museo Nazional Arte Zentroak antolatu du, Espainiako Zinematekarekin lankidetzan.

Zikloak, zinemaren historian funtsezko izan diren bi egileren obra ez ezik, XX. mendeko film-proiektu koherente eta garrantzitsuenetako bat ere aurkezten du. Straub eta Huilletek molde zinematografikoak desegiten dituzte, irudi-soinuekiko harreman berriak proposatzeko, hainbeste miretsitako Cézanne, Griffith, Mallarmé, Chaplin edo Schoenberg-en gogo bertsuarekin. Haien lanean, ondorioz, hala molde artistiko bat nola oraina eteteko modu politiko bihurtzen da zinema.

Atzera begirakoan, itzulpen berriak eta berritutako kopiak sartu dira, eta zikloaren komisario Manuel Asín arituko da aurkezle-lanetan.

URTARRILAK **13** (ostirala)
**19:00**
***Zikloaren aurkezpena*** (50')
zikloaren komisario Manuel Asínen eskutik

**20:00**
**1. saioa**
***Chronik der Anna Magdalena Bach*** *(Crónica de Ana Magdalena Bach)*, 1968, 93'.

URTARRILAK **20** (ostirala)
**19:00**
**2. saioa**
***Machorka-Muff***, 1963, 18'.
***Nicht versöhnt oder Es hilft nur Gewalt, wo Gewalt herrscht*** *(No reconciliados o sólo la violencia ayuda donde la violencia reina)*, 1965, 55'.

URTARRILAK **27** (ostirala)
**19:00**
**3. saioa**
***Der Bräutigam, die Komödiantin und der Zuhälter*** *(El esposo, la actriz y el chulo)*, 1968, 23'.
***Les yeux ne veulent pas en tout temps se fermer ou Peut-être qu'un jour Rome se permettra de choisir à son tour (Othon)*** */ Los ojos no quieren cerrarse todo el tiempo o Tal vez un día Roma se permita elegir a su vez (Otón)*, 1970, 88'.

OTSAILAK **3** (ostirala)
**19:00**
**4. saioa**
***Geschichtsunterricht*** *(Lecciones de historia)*, 1972, 85'.

OTSAILAK **17** (larunbata)
**19:00**
**5. saioa**
***Einleitung zu Arnold Schoenbergs Begleitmusik zu einer Lichtspielscene*** *(Introducción a la «Música de acompañamiento para una escena de película» de Arnold Schoenberg)*, 1973, 15' .
***Moses und Aron*** *(Moisés y Aarón)*, 1975, 105'.
Aurkezpena izango du saioak.

OTSAILAK **18** (ostirala)
**19:00**
**6. saioa**
***Fortini/Cani*** *(Fortini/Perros)*, 1976, 83'.
***Toute révolution est un coup de dés*** *(Toda revolución es una tirada de dados)*, 1977, 10'.

OTSAILAK **24** (ostirala)
**19:00**
**7. saioa**
***Dalla nube alla resistenza*** *(De la nube a la resistencia)*, 1979, 105'.

MARTXOAK **10** (ostirala)
**19:00**
**8. saioa**
***Zu früh, zu spät – Trop tôt, trop tard – Troppo presto, troppo tardi*** *(Demasiado pronto, demasiado tarde)*, 1981, 100'.

MARTXOAK **17** (ostirala)
**19:00**
**9. saioa**
***Le Genou d'Artémide*** *(La rodilla de Artemisa)*, 2008, 26'.
***Le streghe / Femmes entre elles*** *(Las brujas / Mujeres entre ellas)*, 2009, 21.
***L'Inconsolable*** *(El inconsolable)*, 2011, 15'.
***La madre***, 2012, 19'.

MARTXOAK **24** (ostirala)
**19:00**
**10. saioa**
***Un conte de Michel de Montaigne*** *(Un cuento de Michel de Montaigne)*, 2013, 34'.
***Un héritier*** *(Un heredero)*, 2011, 20'.
***À propos de Venise / Geschichtsunterricht*** *(A propósito de Venecia / Lecciones de historia)*, 2014, 23'.
***Dialogue d'ombres*** *(Diálogo de sombras)*, 2014, 28'.

MARTXOAK **31** (ostirala)
**19:00**
**11. saioa**
***Kommunisten***, *(Comunistas)*, 2014, 70'.
***La Guerre d'Algérie!*** *(¡La guerra de Argelia!)*, 2014, 2'.
***L'Aquarium et la nation***, *(El acuario y la nación)*, 2015, 31'.

## FOKUAK:
### LIZZIE BORDEN

Bartzelonako Arte Garaikideko Museoarekin (MACBA) lankidetzan.

Hau *underground* zinema hutsa da; ezagutu orduko, ezinbesteko bihurtzen den zuzendari horietako bat aurkeztuko dizuegu. Lizzie Borden izen-abizenak Estatu Batuetako 70eko eta 80ko zinema independenteari buruzko liburuetan agertu ohi dira, zinema lesbiko militante eta *queer*arekin loturan. Autodidakta, lotsagabea, bazterrekoa, ameslaria... Lizzie Bordenen zinema aurkaritza-istorioz josita dago. Ezarritako ordenaren logikak desafiatuz, ekintza politikoko bitartekotzat jotako jardunbide zinematografikoa ekartzen du jokalekura. Haren zinemak mekanismo baten gisan funtzionatzen du; hots, pantaila komertzialetan nagusi diren kontakizunak baliogabetzeko gauza den mekanismo baten moduan.

***Born in Flames*** **(1983)** kultuko filma 35 mm-tan berritu eta berrinprimatu dela eta, MACBAk programa bat antolatu du, Lizzie Bordenek ekoiztutako lehen filmak berrikusteko. Tabakaleran bat egingo dugu omenaldi/berraurkikuntza horrekin, eta zuzendariaren film adierazgarrienetako hiru proiektatuko ditugu; hain zuzen, amaieran

haren lana genero erradikal-lesbiko-afrofuturista-feminista-zientzia-fikzioko-verité hibridotzat definitu zutenak.

OTSAILAK **11** (larunbata)
**19:00**
***Working Girls,*** Lizzie Borden, AEB, 1986, 86'.
Zuzendaria bertan izango da.

OTSAILAK **12** (igandea)
**12:00**
**Re-grouping,** Lizzie Borden, AEB, 1976, 80'. 16 mm-ko emanaldia.
Z aretoa
Zuzendaria bertan izango da.

MARTXOAK **11** (larunbata)
**19:00**
***Born in flames,*** Lizzie Borden, AEB, 1983, 85'.



***Kommunisten,*** Foco Straub & Huillet, 2014

# GUTUN ZURIAK:
## ROTTERDAMGO NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA (IFFR LIVE EVENT).

Egon al gaitezke bi lekutan aldi berean? Europako zinema-jaialdi ospetsuenetako batean eta gure zinema-aretoan, adibidez? Bada, horixe proposatzen dugu IFFR Live Event saioarekin. Rotterdamgo Zinema Jaialdia urtarrilaren 25etik otsailaren 5era bitartean izango da, eta Tabakaleran bat egingo dugu harekin, zuzenean. Aurtengo sail ofizialeko filmetako bat esklusiban emango dugu, eta, horrez gain, filmaren aurkezpenera birtualki bertaratzeko eta protagonistekin hitz egiteko aukera eskainiko dugu. Iaz, 45 zinema-areto baino gehiago konektatu ziren zinema-jaialdiarekin, zuzenean, Europako 17 herrialdetan. Aurten, guk ere bat egingo dugu tigrearen festarekin –tigrea baita, hain zuzen, Rotterdamgo Zinema Jaialdiaren sinboloa–, eta espazio-denboran gurekin bidaiatzeko proposamena egingo dizuegu.

IFFR Live programa Europar Batasunaren Europa Creativa programaren lankidetzaz gauzatzen da.

URTARRILAK **28** (larunbata)
**IFFR Live event.**
Ordutegia zehazteke.

## GUTUN ZURIAK:
### FIPA. FESTIVAL INTERNATIONAL DE PROGRAMMES AUDIOVISUELS (BIARRITZ).

Urtarrilaren 24tik 29ra, zinema-jaialdi horren 29. edizioa izango da Biarritzen. Jaialdiak telebistako ikus-entzunezko lanak ditu ardatz: dramak, serieak, sorkuntzako dokumentalak, erreportajeak, arte bisual performatiboak eta transmedia. Sei egunez, nazioarteko profesionalek ikus-entzunezko irudi garaikidearen eta ikusleen arteko harremanaz jardungo dute.

Tabakalerak aurtengo edizioko edukiak biltzen dituen programa eskainiko du.

OTSAILAK **5** (igandea)
**18:00**
***FIPAren aukeraketa.***

## GUTUN ZURIAK:
### LOCARNOKO (SUITZA) NAZIOARTEKO ZINEMA JAIALDIA.

Munduko zinema-jaialdi prestigiotsuenetakoa? Bai, hala da; behintzat, nazioarteko zinemagintzako egile ausart eta berritzaileenen arrastoari jarraitzen diotenen iritzian. Locarnoko Zinema Jaialdiak ederki jakin du nola zehaztu bere programazio-ildoak, eta beldurrik gabe bultzatu ditu filmen bitartez zinemaren izaerari buruzko galderak egiten dituzten film eta artistak: zer da zinema, zer izan da, eta zer izatera iritsi daiteke etorkizunean.

Aurkezpena egiteko, eta jaialdiak aurten 70 urte betetzen dituela ospatzeko, Carlo Chatrian izango dugu gurekin, bertako zuzendari artistikoa, zinema-jaialdiaren historiako hiru film aukera ditzan.

OTSAILAK **12** (igandea)
**18:00**
***Germania, anno zero (Alemania, año cero),*** Roberto Rossellini, 1948, Italia, 74'.
Film onena eta gidoi onena Locarnoko 1948ko Zinema Jaialdian.

MARTXOAK **25** (larunbata)
**19:00**
***Mister Universo,*** Tizza Covi, Rainer Frimmel, Austria, Italia, 2016, 90'.
Epaimahaiaren aipamen berezia Locarnoko 2016ko Zinema Jaialdian.
Locarnoko Zinema Jaialdiko zuzendari artistiko Carlo Chatrian izango da saioaren aurkezlea.

MARTXOAK **26** (igandea)
**18:00**
***Höhenfeuer,*** Fredi M. Murer, Suitza, 1985, 120'.
Film onenaren Urrezko Lehoinabarra Locarnoko 1985eko Zinema Jaialdian.

## KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN 0-99

Hilean behin, publiko guztientzako ikus-entzunezko programazioa (animazioa, zinema esperimentala, film laburrak...) aurkeztuko da, eta proiekzioaren ostean, lantegi eta dinamika ezberdinak planteatuko dira zinemarekin lotutako gaiak eta teknikak elkarrekin lantzeko.
+ info 39 or.

URTARRILAK **8** (igandea) **> 12:00**
OTSAILAK **5** (igandea) **> 12:00**
MARTXOAK **5** (igandea) **> 12:00**

# HORMA

Ikus-entzunezko programa Tabakalera eraikinaren hormetara hedatzen da. Ikus-entzunezko programarekin eta Tabakalerako zinemarekin lotutako obrak proiektatzeko gune bat da *Horma*. Hilean behin, egile batek eraikineko hormara, espazio publikora, hedatzen du bere ikus-entzunezko lan zinematografikoa, eta, horrela, Tabakaleran barna dabilen jendearengana gerturatzen da nazioarteko artisten ekarpena. Beraz, kultura bisuala eraikinaren eta ikus-entzuleen egunerokora hedatzea eta bertan integratzea da kontua.

URTARRILA
***New Madrid,*** Natalia Marín, Espainia, 2016, 10'.

OTSAILA
***Europa 2005, 27 de octobre,*** Jean-Marie Straub eta Danièle Huillet, 2006, 11'.

MARTXOA
***The Embassy,*** Filipa Cesar, Portugal, 2011, 37'.

# LABORATEGIAK

*Laborategiak* gure ikus-entzunezko tailerren ildoa da: zinematografiako eta ikus-entzunezko arteari buruzko topaketa praktiko-teoriko batzuk dira, bertako nahiz nazioarteko profesionalek irakatsiak.

MARTXOAK **3 > 5** (ostirala > igandea)
Lantegia
**LAB 01: SUPER 8 MM-KO TAILERRA: KAMERA - FILMATZEA - ERREBELATZEA - EDITATZEA - PROIEKTATZEA.**
*Crater-Lab erakundeko (Bartzelona) Lluis Macías-ek zuzendua.*
**Ostirala 3 >10:00-18:30**
**Larunbata 4 > 10:00-18:30**
**Igandea 5 > 10:00-14:00**
+info eta izen-emateak:
www.tabakalera.eu



***Mister Universo,*** Tizza Covi, Rainer Frimmel, 2016



HIRIKILABS

# JOLABS: OIHALEKIN SORTZEN





# HIRIKI-LABS

Aurkibidea

**JOLABS**

**HIRIKIKAS**

· EHUNGINTZA ESTAZIOA AKTIBATZEN

· HIRIKIKAS: FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA

**HIRIKILABS PLAZA**

*HIRIKILABS. KULTURA DIGITALA ETA TEKNOLOGIA.*
*Tabakalerak eta Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak elkarlanean sorturiko proiektua.*

# JOLABS

URTARRILAK **14, 21, 28**
OTSAILAK **4, 11, 18, 25**
MARTXOAK **4, 11, 18, 25** (larunbata)

Lantegia

## DO IT IN FAMILY

**10:00 - 13:00 EU**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Hiruhileko honetan ere *Do It in Family* (DIF), Egizu familian, formatuarekin jarraituz, prozesu berri bat abiatuko dugu. Haur eta heduek elkarrekin, familian, parte hartuko dute eta denon artean erabakiko ditugu garatuko ditugun proiektuak. Larunbatero lan-formatu librean lan egingo dugu, sormena eta ikasketa kooperatiboa landuz.

OTSAILAK **10** (ostirala)

Lantegia

## INFORMATIKA DESENTXUFATUA: PROGRAMAZIOA IKASTEN

***Trastea***

**17.30 - 19.30** / Adina: 10- 14 urte.

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Ordenagailurik gabe ere egin daiteke informatika. Lantegi honetan programazioaren oinarriak eta lengoaiak ezagutuko ditugu eta zein logika jarraitzen duen ulertuko dugu. Hau guztia ordenagailua ukitu ere egin gabe.

MARTXOAK **10** (ostirala)

Lantegia

## OIHALEKIN SORTZEN

**17.30 - 19.30**

Adina: 8 -12 urte.

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Gure amonek zuten jakintza handietako bat galdu egin dugu: joskintza. Sormenerako, *maker*-entzako tresna bat gehiago da ehungintza. Lantegi honetan patroiak moztu eta josten ikasiko dugu eta norberak sortutako diseinuak garatuko ditugu.



***EHUNGAILUA. NOLA ERAIKI ETA ERABILI?***

# HIRIKIKAS

## EHUNGINTZA ESTAZIOA AKTIBATZEN

URTARRILAK **17 > 18** (asteartea, asteazkena)

Lantegia

### EHUNGAILUA. NOLA ERAIKI ETA ERABILI?

*Amara Montes*

**17:00 – 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Laborategian ehungintza proiektuak garatu ahal izateko tresnak eskaintzeko helburuarekin, ehungailu bat egin eta erabiltzeko lantegia proposatzen dizuegu. Horretarako Amara Montes ehule artisauaren laguntza izango dugu. Berak gerturatuko gaitu ehundegien mundura eta hauen teknologiara.

URTARRILAK **24 > 25** (asteartea, asteazkena)

Lantegia

### FABRIKAZIO DIGITALA ETA TEKNOLOGIAREKIN ESPERIMENTATZEN

*Anastasia Pistofidou*

**17:00 – 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Fabrikazio digitalak ehungintzan izan ditzakeen aukerak aztertuko ditugu lantegi honetan. Horretarako Anastasia Pisfofidou arkitektoa izango dugu gurekin. Honek 2013an ehungintza eta fabrikazioaren inguruan ikerketa lerro bat abiarazi zuen, teknika digital eta artisau teknikak nahasiz.

OTSAILAK **7, 14** (asteartea)

Lantegia

### PROGRAMAZIO SORTZAILEA P5JS BIDEZ. HASTAPENA

*Interzonas. Karlos G. Liberal + Aitor Resano*

**17:00 – 20:00**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Processing-ak milaka artista inspiratu du mundu osoan zehar, ez soilik artelanak sortzeko tresna gisa, baita asmo ezberdineko tresna berriak pentsatzeko ere. P5js komunitatean sortua eta procesing fundazioak eutsia, Open source proiektua da. Ikuspegi moderno batekin eta nabigatzaile batekin erabiltzeko pentsatua, formarekin, animazioarekin eta eraldaketekin jolasteko aukera eskaintzen digu.

OTSAILAK **21, 28** (asteartea)

Lantegia

### ARCADE JOKO MAKINA ERAIKIZ - DONOSTITRON II

**17:00 – 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Lantegiaren helburua bigarren DonostiTron joko makina sortzea da. Kasu honetan fabrikazioaren % 100 garatuko dugu: hardwarea, jokoak abiarazteko softwarea (launcher-a), baita makinaren diseinua eta fabrikazioa ere, bere osagai guztiekin: pantaila, botoiak eta aldagailua. Lantegiko bi saio hauek DonostiTron II makinaren diseinua eta jolasaren proiektu orokorra sortzeko balioko digute, eta ondoren, interesa duten haiek, lan talde bat sortu eta proiektua lantzen jarraitu ahal izango dute laborategian.

## HIRIKIKAS: FABRIKAZIO DIGITALERA HASTAPENA

MARTXOAK **7, 14** (asteartea)

Lantegia

### 3D INPRIMAKETA

**17:00 – 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

3D inprimaketak, hiru dimentsioko objektuak fabrikatzean datza. Ordenagailuak sortutako modelo digitaletik abiatuta, geruzaz geruza, materiala pilatuz sortzen da. Ikastaroan, hardware librean oinarritutako hiru dimentsioko inprimagailuen erabilera eta programazioa ikasiko ditugu.

MARTXOAK **21, 28** (asteartea)

Lantegia

### LASER MOZKETA

**17:00 - 20:00 ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

Laser mozketa material ezberdinen mozketa egiteko erabiltzen den teknika da. Laser mozketa makinak laser potentzia altua biltzen du lan egingo duen materialaren azaleran. Lantegian makinaren maneiua eta mozketarako diseinuak prestatzeko softwarea erabiltzen ikasiko dugu.



***HIRIKILABS PLAZA***

# HIRIKILABS PLAZA

URTARRILAK **12** > OTSAILAK **16**
(ostegunero)
Topaketa

## HIRIKILABS PLAZA VI: PROIEKTUAK GARATZEKO LAN SAIO IREKIAK

**16:00 - 20:00 EU, ES**
Izen-ematea aldez aurretik.
Hirikilabs

2016an *Hirikilabs Plaza*-ren seigarren deialdian aukeratutako proiektuen garapenerako hasitako lantaldeek ostegunero biltzen jarraituko dute 2017ko martxorarte. Oraindik martxan dauden eta garapenean parte har dezakezun proiektuak honakoak dira:

*Itzalitzel; Ehaerospace; Artexmachina; picetik picera: Arduino autoescan; Eskultura dinamiko eta zinetikoak; Eguraldi estazio meteorologikoa; Filamentua birziklaturiko plastioatik ekoiztu; Musika instrumentu elektronikoa; Bifokodun kámara reflex bat digitalizatu; Skypointer eraldatzea; Vacuum Forming.*

URTARRILAK **2** > OTSAILAK **2**
Deialdia

## HIRIKILABS PLAZA: PROIEKTUAK GARATZEKO 7. DEIALDIA

\+ info: www.tabakalera.eu

*Hirikilabs Plaza* proiektu irekien deialdian edonork teknologia edo/eta kultura digitalarekin zer ikusia duen proiektu proposamen bat aurkeztu dezake, beste pertsonekin batera Hirikilabsen gauzatu ahal izateko.

Deialdi honen filosofia kultura librea, diseinu irekia eta ezagutza partekatua sustatzean datza.

Izena eman duten proiektuen aurkezpen irekia egin ondoren, interesa duten pertsonak proiektuetan lanean hasteko aukera izango dute osteguneroko *Hirikilabs Plaza* saioetan.

OTSAILAK **23** (osteguna)
Topaketa

## HIRIKILABS PLAZA VII: PROIEKTU IREKIEN AURKEZPEN PUBLIKOA

**18:30 EU + ES**
Hirikilabs

Kolaboratzaile bila dabiltzan teknologia edo/eta kultura digitalarekin zer ikusia duten proiektu irekien aurkezpen publikoa. Aurkezpenaren ostean, interesatuen artean lan taldeak osatuko dira eta hauek datozen hilabetetan ostegunero bilduko dira proiektuak garatzeko.

Urtarrilaren 2tik otsailaren 2ra bitarte irekita izandako deialdi publikoan izena emandako proiektuak aurkeztuko dira ekitaldi honetan.

MARTXOAK **1** > UZTAILAK **5** (ostegunero)
Topaketa

## HIRIKILABS PLAZA VII: PROIEKTUAK GARATZEKO LAN SAIO IREKIAK

**16:00 – 20:00 EU + ES**
Hirikilabs

*Hirikilabs Plaza*-ren zazpigarren deialdian aukerarutako proiektuan garatzeko lan saiok hasiko ditugu.


HEZKUNTZA



# HEZKUN-TZA

Aurkibidea

**KAMALEOIAK GARA!**
· KAM>PAMENTUAK
· PROGRAMA
· ERAKUSKETA
· ZINEMAN

**HEZKUNTZA KOMUNITATEA**
· IBILBIDE-TAILERRAK
· ELKAR-EKIN, EPE ERTAINEKO PROGRAMA

**IRAKASLEEKIN PROGRAMA**

**HIRIA HACKEATU**

**ZOOM. BIDEO LABORATEGIA**

**0-6 GUNEA**

# KAMALEOIAK GARA!

*Kamaleoiak gara!* jarduera programa bat da haurrek eta helduek elkarrekin goza dezaten arte garaikidearen inguruan. Tabakalera elkarrekin bizi, jakintzak partekatu eta belaunaldien arteko komunitate batean ikasi nahi duten amak seme-alabekin, aitak ilobekin, bilobak amonekin...

URTARRILAK **3 > 5** (asteartea > osteguna)

Lantegia

## KAM>PAMENTUAK: COLLAGEA ETA AKZIOA

**17:00 - 18:30 EU-ES** / Adina: +6 urte.
Izen-ematea aldez aurretik.
Patioa

*Collagea eta akzioa* errealitate berriak eraikitzeko joko bat da.

Zer gertatuko litzateke objektuei izena aldatuko bagenie? Eta beste erabilera bat emango bagenie? Edo gorputz bat objektu bat dela eta objektu bat beste hainbat gorputz direla imaginatzen badugu? Eta aulki bat mugitzean zaldien zarata egiten badu edo mikrofono hanka batek lore bat bezala usaintzen badu? Arauak dituen joko bat, arbitro bat eta lehiakortasunik ez duten eta sortzea helburu besterik ez duten parte hartzaileak.

URTARRILAK **28**, OTSAILAK **11**, MARTXOAK **12, 25**

## KAMALEOIAK GARA! PROGRAMA 0-99

Izen-ematea aldez aurretik.

**Urtarrilak 28** (larunbata)

Arte biziak

## LUR AWAY

***Sra. Polaroiska***

**17:00 (45´) EU** / Adina: +6 urte.
Patioa

Areto bat jendez gainezka.
Edozer gauza gerta liteke.
Biziraun?

Bizirautea ezagutza eta gaitasun ezberdinak eskatzen dituen diziplina anitzeko artea da. Guretzat oso garrantzitsua zarela jakinarazi nahi dizugu, horregatik "bizirauteko teknika" hauek zurekin partekatu nahi ditugu.

**Otsailak 11** (larunbata)

Performancea

## ¿Y POR QUÉ JOHN CAGE?

***Jorge Dutor & Guillem Mont de Palol***

**17:00 (50´) ES**
Z aretoa

-Ados, hasieratik hasiko gara.
-Ongi, baina zezoer egin beharko genuke ezta? ez dakit...
-Ariketa batekin frogatu dezakegu, adibidez, tximuarena egin.
-Nik nahiago dut materialeak topatzen joan, nire ustez, proiektu honetarako konkretuki lehenengo inprobisatu egin behar dugu, soinuen musikalidadeek eraman gaitzaten utzi, eta gorputza topatu: Gorputza! Gorputza!

**Martxoak 12** (igandea)

Performancea

## MUXUA DA MEZUA

**18.00 EU /ES**

Patioa

+info 17 or.

**Martxoak 25** (larunbata)

Antzerkia

## MARTINAK BERE ISTORIOA AURKITU ZUENEKOA

*Mauma Teatro*

**17:00 (50`) EU**

Z aretoa

Martinari ez zaio gustatzen etxetik irtetzea, beste neskekin jolastea...

Ez da egia, gehien gustatzen zaiona putzuz putzu saltoka ibiltzea da.

Martinak kamioiak gidatzea du gogoko. Bai zera, hegazkinak gidatzea.

Hegazkinak ez dira gidatzen, pilotatu egiten dira, eta berak andre heroia izan nahi du. Edo jaun heroia?

Antzerki eta txontxongilo obra honetan, genero-identitatea jorratzen da, haurtzaroan.

URTARRILAK **15**, OTSAILAK **19**, MARTXOAK **19** (igandea)

Lantegia

## KAMALEOIAK GARA! ERAKUSKETA 5-99

**11:00 - 12:30 EU**

Izen-ematea aldez aurretik.

Erakusketa aretoa

Lantegi hauen bidez jolastea, ibiltzea, parte hartzea, eta era dinamikoan erakusketa aretoetan dauden arte piezak, objektuak eta diskurtsoak aktibatzea proposatzen dugu.

URTARRILAK **8**, OTSAILAK **5**, MARTXOAK **5** (igandea)

Proiekzioa + Lantegia

## KAMALEOIAK GARA! ZINEMAN 0-99

*Aitor Gametxo*

**Proiekzioa 12:00** (zinema sarrera)

**Lantegia 12:45 EU** (izen-ematea)

Aurten ere zinemara goaz! Ohikoak zaizkigun telebista eta zinema komertzialetik kanpo dauden animaziozko film laburrez gozatzeko aukera izango dugu, eta ondoren, Aitor Gametxorekin batera, ikusitakoarekin lotura duten gaiak eta teknikak landuko ditugu: stop motion-a, zeluloidean esku hartzeak e.a.



***¿Y POR QUÉ JOHN CAGE?***

# HEZKUNTZA KOMUNITATEA

Hezkuntza zentroei, elkarteei eta helduen heziketa taldeei zuzendutako programak.

Taldentzat lantegia

## IBILBIDE-TAILERRAK

*Ibilbide tailerrek* Tabakalerara lehen hurbiltze bat ahalbidetzen dute. Saio dinamiko hauetan taldeen parte hartze aktiboa bilatzen dugu gai ezberdinen bidez.

### TABAKALERA ESPLORATUZ!

*Lehen hezkuntzako taldeei zuzendua*

Eraikineko zenbait gunetatik egindako ibilbide batetik abiatuta, espazio publikoaren erabileran eta pertzepzioan sakontzen da, baita eguneroko tokiak bizi ditugun eta bertan jokatzen dugun moldeetan ere. Zenbait dinamika eta jolasen bidez, lantegi honek Tabakalerako guneak eraldatzea eta haien erabilera kolektiboaz hausnartzea proposatzen du.

### REC: ZINEMA ESPERIMENTALA!

*Bigarren hezkuntza eta batxilergoko taldeei zuzendua*

Gazteen iruditegi eta auto-errepresentazio moldeetatik abiatuz, bideo lantegi berri bat aurkezten dugu. Aukeratutako hainbat film labur eta zinema esperimental zatietatik abiatuz, identitate anitzen eta gure burua erretratatzeko formen inguruan eztabaidatuko dugu. Honek, ondoren, kamara eskuan hartuta egingo ditugun ariketen marku gisa balioko digu.

### ERAKUSKETEKIN IBILBIDE-TAILERRAK

*Lehen eta bigarren hezkuntzako eta batxilergo taldeei eta elkarteei zuzendua*

**Organismo bizidunen agentzia**
(>02/05)
+ info: 14 or.

Lantegi honetan gizakion jarduerek ingurune natural eta sozialean duten inpaktuaz arituko gara. Erakusketan barrena, artelan desberdinetatik abiatuz, biosfera, hidrosfera, litosfera, teknosfera eta atmosferako fenomeno eta organismoak aztertu eta ezagutuko ditugu. Ondoren, biomimetikatik abiatuz organismo biziak sortuko ditugu gure gorputzez, material biztziklatuez edo robotikaz baliatuz.

**Bizigarriak: Zirkulazioa eta Euforia**
(02/17 > 06/11)
+ info: 16 or.

Dinamika desberdinen bitartez erakusketan barrena ibiliko gara, kakaoa, azukrea, kafea eta tabakoaren erabilera eta zirkulazioaz hausnartzen. Zer nolako eragina izan dute produktu hauek gure prozesu historikoetan zehar? Gure eguneroko kontsumoetatik abiatuz, lan industrialaren sorrera eta natur baliabideen esplotazioaz, kolonialismoaz eta plazerraz arituko gara.

### PEDAGOGIA ETA PRAKTIKA ARTISTIKOAK

*Hezkuntzan interesa duten taldeei (unibertsitatea, irakasleak, ikasleak...) zuzendua*

Tabakalerako hezkuntza arloaren helburuetako bat arte hezkuntzarekiko begirada kritikoa lantzea da. Praktika artistikoa esparru ezin hobea da mundua begiratu eta eraikitzeko beste bide batzuetara hurbiltzeko. Mediazioan eta arte hezkuntzan ordea, korronte ezberdinak egonik, gure kasuan,

pedagogia kritikoa eta pedagogia feministak eta kritika kulturala lantzen ditugu. Ezagutzak eraikitzeko bideak eta elkarlana bultzatzeko egoera berriak bilatzen ibiltzen gara etengabe.

Proiektuak "nola" egiten ditugun ezagutu, gure planteamenduak eta lan moldeak partekatu, eta bide batez, praktika eta dinamika ezberdinetan parte hartzera gonbidatzen ditugu arte hezkuntzan interesa duten taldeak (unibertsitatea, irakasleak, ikasleak...).

## MAÑANA GOODBYE. ELKARREKIN LAN EGITEN DUEN EMAKUME TALDEA

*Elkarte eta helduei zuzendua*

Tabakalerako Sotoan kokatutako *Mañana Goodbye* ikus-entzunezko instalaziotik sortu da lantegia. Proiektu honetatik ateratako materialen bidez lana, oroimena edo historia bezalako nozioen inguruan gogoeta egitera eramango gaituzten dinamika eta jolas sorta bat gauzatuko dugu.
+ info: 18 or.

Taldentzat lantegia

## ELKAR-EKIN EPE ERTAINEKO PROGRAMA

*Donostialdeko hezkuntza zentroei eta elkarteei zuzendua*

Ikasturte osoan zehar / Datak eta ordutegia: taldeko arduradunarekin adosten direnak.
Iraupena: 3-5 saio.
*(Tabakalerako bisitaldiek 2 ordu iraungo dute; ikasgelako lana, berriz, talde bakoitzaren ordu premietara egokituko da).*

*Elkar-Ekin* hezkuntza talde desberdinekin batera diseinatu eta garatzen den epe ertaineko programa da. Ez dago aldez aurretik gai espezifiko edo itxirik, taldearen behar partikularren eta Tabakaleraren programa kulturalaren artean loturak bilatzen dira. Hala, curriculuma, ikasgaiak edo interes zehatzak arte praktika eta hezkuntza metodologiarekin konbinatzen dira.



***IBILBIDE-TAILERRAK***

# IRAKASLEEKIN PROGRAMA

Programa honek irakasleen eta Tabakalerako hezkuntza taldearen artean jakintzak eta esperientziak partekatzeko zenbait topaketa barne hartutzen ditu. Topaketa hauek elkarrekiko ikasketa prozesuak sortu, dauden premiak eta interesak ezagutu eta hezkuntza tresna irekiak ahalbidetzeko espazio moduan ulertzen ditugu. Horretarako, elkarrizketa esparru bat eskaintzen dugu hezkuntzaren eta kultura garaikidearen artean.

OTSAILAK **8 > 9** (asteazkena > osteguna)

## PIKUTARA!
## Agroekología eta hezkuntza

***Marc Badal, Assumpta Ayerdi, MIrene Begiristain***

**17:00 - 20:00**

Izen-ematea aldez aurretik.

Lantegia

Irakasleen programaren seigarren edizio hau agroekologia eta hezkuntzaren arteko elkareraginean oinarrituko da. Bertan, besteak beste, elikaduraz, kontsumoaz edo nekazal munduaren historiaz arituko gara, gaur egungo gizarte egiturak pentsatzeko beharrezkoak direla ulertuz, baita ezagutza forma kolektiboak eraikitzeko ere. Gure asmoa eztabaida foro bat sortzea da, ezagutza zientifiko eta herri-jakinduriaren arteko desberdintasunez hausnartzeko, azken hau, zein modutan etxeko eta esfera pribatura alboratua izan den ikusiz.

URTARRILAK **27**, OTSAILAK **24**, MARTXOAK **31** (ostirala)

Lantaldea

## HIRIA HACKEATU

**17:00 - 19:00**

Izen-ematea aldez aurretik.

Hirikilabs

*Hiria Hackeatu* lantaldea teknologia digitalekin esperimentatzeko interesa duten, beren ingurunean aldaketak eragiteko eta proposatzeko prest dauden eta ikasketa prozesu parte-hartzaileetan *hacker* eta *maker* filosofietan hausnartzeko gogoa duten 12-17 urte bitarteko gazteek osatzen dute.

Lantegia-Lantaldea

## ZOOM. BIDEO LABORATEGIA

Adina:16-21 urte.

Izen-ematea aldez aurretik.

Ikus-entzunezkoetan interesa duten 16 eta 21 urte arteko gazteek osatzen dute *Zoom* taldea. Bi astetik behin elkartzen gara Tabakaleran eta taldearen interes eta beharretatik abiatuz erabakitzen dugu saioetan zer egin, besteak beste, ikus-entzunezko materialak ikusi eta sortu, artista eta esparru desberdinetako sortzaileekin lantegiak egin, Tabakalerako *Aro Atomikoa* izeneko zinema zikloan filmeak programatu eta aurkeztu, eta gure antzeko beste gazte taldeekin harremanetan egon eta bidaiak egin...

Lantaldea

# 0-6 GUNEA

Tabakaleran 0-6 urte bitarteko haurrak helduekin batera egoteko espazioen inguruan hausnarketa prozesu bat jarri da martxan.

*0-6 Gunea* elkarlan eta diseinu proiektu ireki bat da. Helburua Tabakalerako kale espazioetan ireki eta erabili daitekeen gailu bat era kolektibo eta partehartzailean diseinatu eta eraikitzea da. Prozesuaren lehen fasea 2016ko maiatzan hasi zen, konfigurazio ireki bati eutsiz eta pertsona interesatuak prozesuaren garapenean txertatu zitezen ahalbideratuz.

OTSAILAK **3** (ostirala)

Topaketa

## IREKIERA FESTA

***Turukutupa***

**18:30**

Hirikilabs

9 hilabete baina gehiagotan zehar Hirikilabs laborategian elkarrekin diseinatu eta ekoiztu diren espazio-baliabideak martxan jarriko ditugu. Espazioaren irekiera ospatzeko Turukutupa taldearekin berreskuratutako materialen bidez egindako instrumentuen tailerra eta soinu-jira antolatu ditugu.

Lantaldea

URTARRILAK **13, 27**
OTSAILAK **10, 17, 24**
MARTXOAK **3, 10, 17, 31**
(ostirala)

Saio hauetan *0-6 Gune*rako elementu berrien diseinuarekin jarraituko dugu eta espazio berriaren antolakuntza eta garatuko dugun programaren inguruan arituko gara.



***0-6 GUNEA***

UBIK







# UBIK

## Tabakalerako sorkuntza liburutegia

Aurkibidea

PENTSAMENDUA
AUTOEDIZIOA
BIDEO-JOKOAK
TEKNOLOGIA
BESTEAK

# PENTSAMENDUA

URTARRILAK **10**, OTSAILAK **14**, MARTXOAK **14** (asteartea)

Topaketa

## NIRE MUNDUA. HAURRENTZAKO FILOSOFIA

**17:30 - 19:00 EU** / Adina: 8-12 urte.
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Egongela

Gizartean egunero entzun eta bizitzen diren gaien inguruan galdetu, hitz egin, pentsatu eta elkarrizketa bultzatzea dira *Nire mundua* topaketaren helburuak.

Denbora libreari eta lagunarteko giroari etekina ateraz, kezkak, dudak eta zalantzak sortzen dizkiguten gaien inguruan aritzeko aukera paregabea.

Gogoetarako tartetxo lasai bat hartzeko luxua.

URTARRILAK **12** (osteguna)

Aurkezpena

## KORAPILOAK. BIZIGARRIAK: ZIRKULAZIOA ETA EUFORIA

*Koldo Salinas, Sole Agirre*
**18:30 - 19:30 EU + ES**
Ubik, Egongela

Tabakalerako proiektu artistikoen eremutik bultzaturiko *Bizigarriak: zirkulazioa eta euforia* proiektua eta Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiaren arteko gurutzebidean gorpuzten den egitasmoa da *Korapiloak*. Hausnarketa bultzatzen saiatzen den programa bat da, bizigarri ideia ikuspegi botaniko, neuroplastiko, material eta estetiko batean hartuta. *Korapiloak* saioetara gonbidaturiko pertsonek Ubik-en katalogorako bost erosketa berri proposatuko dituzte eta aurkezpen publiko bat egingo dute aukeratutako elementuen bidez egin duten ibilbide -korapiloaren- inguruan.

URTARRILAK **26** (osteguna)

Aurkezpena

## UBIK BISITARIAK. EROMECÁNICA. LA ERÓTICA DE LA MAQUINARIA SOCIAL

*Saioa Olmo*
**18:30 - 19:30 ES**
Ubik, Pantaila esperimentala

Ubik sorkuntza liburutegiak, kanpoko proiektu eta egitasmoen erakusleiho ere izan nahi du. Oraingo honetan *Eromecánica. La erótica de la maquinaria social* lanaren aurkezpena hartuko du. Liburuaren aurkezpena aitzaki izango da zenbait gairen inguruan solastu eta gogoeta bultzatzeko: boterea, erotismoa, menpekotsauna... Mekanika hauek hainbat giza estruktura mantentzen laguntzen dute, hala nola, kartzela, eskola, lana, erlijioa edo kontsumoa. Idazlea botere joku hauen inguruan ditugun hurbileko esperientziaz arituko da.

URTARRILAK **27**, OTSAILAK **24**, MARTXOAK **31** (ostirala)

Topaketa

## XAKE MATE! MAHAI JOKOEN ARRATSALDEA

*Iñaki Vázquez*
**18:00 - 20:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

Astea amaitzeko modu hoberik ote? Ostiral arratsaldea mahai-jokoetan aritzeko unea da Ubiken.

Joko ezberdinetan aritzeko aukera izango dugu: arrazonamendu taktikoa edo estrategia lantzen dutenak batzuek; koordinazioa, esku abilezia eta memoria besteak, baita zorian oinarritzen direnak ere.

Dadoak, fitxak, kartak, rol-a edo xakea eta beste hainbat joko ere pasako dira mahaitik. Ez galdu zure txanda!

URTARRILAK **28**, OTSAILAK **25**, MARTXOAK **25** (larunbata)

Topaketa

### ESPLORATZAILEAK. PENTSAMENDU KRITIKOAREN INGURUKO IRAKURKETA TALDEA

*Martxel Mariskal*

**11:30 - 13:30 EU + ES** / Adina: +18 urte.

Izen-ematea aldez aurretik.

Ubik, Egongela

Gustoko duzu irakurtzea?, eta filmak ikustea?, zein ondorio ateratzen dituzu?, zergatik dituzu gustoko?, inori gomendatuko zenizkioke?.

Hala bada, har ezazu parte Ubikeko *Esploratzaileak* taldean. Liburutegiko funtsa abiapuntu hartuta, bertako liburu eta filmekin gozatzeko aukera izango duzu.

Hartu zerrenda, irakurri, ikusi, partekatu eta proposatu.

*Outline. Pentsamendu kritikoa* saioen jarraipena da *Esploratzaileak* topaketa.

## AUTOEDIZIOA

URTARRILAK **25**, OTSAILAK **22**, MARTXOAK **29** (asteazkena)

Lantegia

### ATLAS. AUTOEDIZIO LANTEGIAK

**18:00 - 20:00 EU + ES**

Izen-ematea aldez aurretik.

Ubik, Autoedizio txokoa

Lanerako prest! *Atlas* saioak autoedizio lantegi bilakatu dira aurten.

Autoedizioren inguruan dauden eremu ezberdinak ezagutu ondoren (azokak, banaketa, diseinua, aintzinako teknikak, marrazki lanak...), aurten egiteari ekingo diogu. Hilabetero gai bat jorratuz lantegi bat burutuko dugu: koadernaketa, serigrafia, kaligrafia, papergintza...

## BIDEO-JOKOAK

URTARRILAK **10, 24**; OTSAILAK **14, 28**; MARTXOAK **14, 28** (asteartea)

Topaketa

### NIK ERE NAHI DUT!

**11:00 - 12:30 EU + ES** / Adina: +50 urte.

Ubik, Bideo-jokoaren txokoa

Nork esaten du bideo-jokoak gazteen gauza direla? Jolastu, saiatu, frogatu eta ondo pasatzeko ez dago adinik. Beldurra eta lotsa alde batera utziz, Ubik liburutegian bideo-jokoetan aritzeko aukerari atera iezaiozu etekina. Probatu eta ikasi. Zatoz bideo-jokoen mundua deskubritzera!

## TEKNOLOGIA

URTARRILAK **21**; OTSAILAK **4, 18**; MARTXOAK **4, 18** (larunbata)

Lantegia

### JOLABS

**11:00 - 13:00 EU + ES** / Adina: +8 urte.

Izen-ematea aldez aurretik.

Ubik, Lantegia

*JoLabs* haurrak eta gazteak teknologiaren eta kultura digitalaren mundura hurbiltzeko asmoa duten lantegiak dira.

Lantegi hauetan, elektronika, mekanika, kodea, bideo-jokoak eta fabrikazio digitala bezalako zenbait arlo landuko dira modu pedagogiko, kritiko, sortzaile eta dibertigarrian. *Plastilina eroalea, Stop Motion, Nire lehen joysticka, Hackeatu zure jostailuak* eta beste hainbat saio burutuko dira hilabete hauetan.

Eman izena!

# BESTEAK

URTARRILA, OTSAILA, MARTXOA (asteazkenero)
Lantegia
## ASTEAZKENETAN UBIKEN
**17:30 - 19:00 EU** / Adina: 6-10 urte.
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Asteazkenero, Tabakalerako Ubik sorkuntza liburutegiko gai ezberdinak deskubritu ahal izango ditugu ekintza ezberdinak proposatuz. Haurrei zuzendurik, elkarrekin sormena lantzea eta ondo pasatzea izango dira helburu.

URTARRILAK **14**, OTSAILAK **11**, MARTXOAK **11** (larunbata)
Lantegia
## HORKONPON. KONPONKETA LANTEGIA
**10:00 - 14:00 EU + ES**
Ubik, Lantegia

*HorKonpon*en parte hartzeko ondoko bi baldintzetako bat (ala biak) bete beharko dituzu: eskulanen arloan irakasteko zerbait izatea edo ikasteko gogoa izatea.

*HorKonpon* egunerokoan erabiltzen dugun hainbat tresna konpontzea eta berrerabiltzea ardatz hartzen duen lantegi irekia da (kafeterak, kremailerak, kontsolak...). Herritarrak autonomoago bihurtzea (Do It Yourself) eta talde-lana sustatzea (Do It Together) ditu helburu.

Horretarako, adin eta gaitasun ezberdinetako jendea elkartu nahi ditu eta, teknika eta teknologiari buruzko ezagutzak partekatzearen bidez, elkarrengandik ikasteko bideak ireki.

Badakizu, hilabeteko bigarren larunbatetan *HorKonpon* Ubiken.

OTSAILAK **23** (osteguna)
Aurkezpena
## UBIK BISITARIAK. TIRABIRAK/ TIRAS QUE AFLOJAN
**18:30 - 19:30 EU**
Ubik, Pantaila esperimentala

*Tirabirak/Tiras que aflojan* proiektuak euskal gatazkaren ibilbidea (1977-2016) egitea proposatzen digu, horretarako, egunkarietako binetetan nola irudikatua izan den ikusis eta haren inguruko gogoeta eginez. Paperean argia ikusi zuten marrazkiak orain euskarri digitaletan kontsulta daitezke transmedia ikuspegiarekin garatutako proiektu ireki honi esker.

MARTXOAK **04, 11, 18, 25** (larunbata)
Topaketa
## AHO BETE AMETS. SORTU, KANTATU, IRUDIKATU, DANTZATU
*Yolanda Arrieta*
**17:30 - 19:00 EU**
Adina: 4-6 (heldu batez lagunduta).
Izen-ematea aldez aurretik.
Ubik, Lantegia

Txikiak eta helduak elkarrekin sortu, kantatu, irudikatu eta dantzatu nahi baduzue, larunbat arratsaldetan duzue aukera. Ubiken elkartuko gara kantak ikasteko, istorioak entzuteko, marrazkiak irudikatzeko eta elkarren arteko komunikazioa indartzeko, aho sorkuntza sustatzen dugularik.

MARTXOAK **17 > 19** (ostirala > igandea)

Ospakizuna

## ZORIONAK UBIK!

**10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00**

Tabakalera eta Ubik

Eta konturatu orduko urte bete pasa da! Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiaren urteurrena ospatuko dugu hilabete hauetan lagun izan zaituztegun guztiekin. Horretarako ekintza ezberdinak antolatu ditugu: lantegiak, jolasak, marrazkiak, musika... baita sorpresaren bat ere.

Zatoz gurekin ospatzera, zu ere Ubiken parte zara eta!

MARTXOAK **30** (osteguna)

Aurkezpena

## GIZA LIBURUTEGIA

**11:30 - 13:30 EU + ES**

Ubik, Lantegia

*Giza Liburutegia* pertsonetan eta euren bizipen, esperientzia eta ezagutzen bidez sortzen dituzten harremanetan oinarritzen da. Elkarrizketa gurutzatuen bidez, liburutegiko protagonistek bizi istorio eta interes propioak partekatuko dituzte parte-hartzaileekin, solasaldia eta harremanak sustatuz.

Plus 55-rekin elkarlanean.



**ZORIONAK UBIK!**

SORTZAILEEN GUNEA





# SORTZAI-LEEN GU-NEA

Aurkibidea

**ATALAK XXIX**

*Sortzaileen Gunea* artista eta eragile kulturalen profesionalizazioa laguntzeko sortutako zerbitzua da. Gune honek, alde batetik, sorkuntzarako baliabideak eskeintzen ditu (lanerako estudioak, baliabide teknikoak, egonaldi programa); bestetik, praktika garaikideen ikusgarritasuna sustatzeko programa ere garatzen du, bai eta gai administratiboen, beken eta deialdien inguruan informazioa eta aholkularitza.

OTSAILAK **16** (osteguna)

Koreografia sormena

## ATALAK XXIX

***Fabio López, Marta Coronado***

**21:00**

Victoria Eugenia antzokiko Club aretoa

ATALAK Dantzaz konpainiaren egitasmoa da, Donostia Kulturak bultzatuta. Honen bitartez Euskal Herrriko koreografoei aste bateko sormen egonaldiak garatzeko aukera eskaintzen diote euren 12 dantzarirekin.

Urtero 6 egonaldi eskaintzen dira, hauek binaka espazio desberdinetan aurkezten direlarik: Tabakaleran, Victoria Eugenia antzokian, Miarritzeko Gare du Midin, eta Azkuna Zentroan.

Lehen aurkezpena otsailaren 16an izango da, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, eta bertan ATALAK XXIX, Fabio López eta Marta Coronadoren sormenak aurkeztuko dira.

Tabakalera proiektu honen parte da ondorengo erakundeekin batera: Dantzagunea, Centro Coreográfico Nacional Malandain Ballet Biarritz eta Azkuna zentroa.



***ATALAK XXIX***

KULTURA GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO ZENTROA

# OHARRAK

# BISITAK

Erakusketak ezagutzeko eta eraikinaren historia eta memoriara hurbiltzeko ibilbideak eskaintzen ditu Tabakalerak.

IKASTETXEAK ETA ELKARTEAK
Taldeei zuzenduta, Ibilbide Tailerrak eskaintzen ditugu arte garaikidera hurbiltzeko helburuarekin. Erreserba egiteko jar zaitez hezkuntza arloarekin harremanetan: **hezkuntza@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA PRIBATUAK
Bisita pribatu bat eskatzeko (euskaraz, gazteleraz, ingelesez, frantsezez edo alemanez) jar zaitez harremanetan Informazio puntuarekin: **info@tabakalera.eu** helbide elektronikoan edo **+34 943 118 855** telefono zenbakira deituz.

BISITA HISTORIA, OROIMENA ETA LANA
Tabakalerako historia eta memoria ezagutzeko eta *Mañana Goodby*e proiektura hurbiltzeko bisitak. +Info: 18 or.
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo Informazio puntuan.

BISITA SOLASALDIAK ETA BISITA ESPERIMENTALAK
Erakusketak ezagutzeko bisitak. +Info: 14-17 orr.
Erreserbak: **info@tabakalera.eu** edo Informazio puntuan.

# AKTIBITATEETAN IZEN-EMATEA

Izen-ematea aldez aurretik egitea eskatzen duten aktibitateetan parte hartzeko, www.tabakalera.eu edo Informazio puntuan eman izena.

ZINEMA SARRERAK:

· www.tabakalera.eu
· Informazio puntuan
· Leihatilan emanaldia baino 30' lehenago
· Prezioa: 3,50€

# IRISGARRITASUNA

Eraikina dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako zein familientzako egokituta dago hein handi batean.

Gurpildun aulki bat dago erabiltzaileon eskura. Zeinu Hizkuntza Interpretazio Zerbitzuarekin (ZHIZ) bisitak erreserbatzeko aukera ere badago.
ZINEMA: Zinema aretoak Bukle magnetiko sistema eta sei besaulki egokitu ditu, lehen ilaran.

# TABAKALERA TXARTELA

Tabakalera txartela eskuratzeko aukera dago Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiaren harreran (2. solairua).

*NOTA: Eskuorri honetan argitaratutako informazioak aldaketak jasan ditzazke. Azken eguneraketak ikusteko web orria kontsultatu.*




**Informazio puntua**

**Igogailuak**

**WC**

**Aldatzeko mahaia**

**Eskailerak**

**Jatetxea**

**TABA**

**Hotela-Egoitza**

+info
**www.tabakalera.eu**

## SOLAIRUA

### 0

1 SOTOA
2 PLAZA
3 KUTXA KULTUR ARTEGUNEA
4 NANA
5 LÄNTOKI
6 ARTEUPARTE
7 NON GALLERY
8 EL SEKADERO
9 BASQUE LIVING
10 TABA

### 1

1 TABAKALERAKO ERAKUSKETA ARETOA
2 PATIOA
3 ZINEMA, 1 ARETOA
4 Z ARETOA
5 HEZKUNTZA ARETOA
6 KUTXA KULTUR KLUBA
7 1 ESPAZIOA
8 GANBARA
9 HOTELA-EGOITZA
Laster zabalik

### 2

1 UBIK
Tabakalerako sorkuntza liburutegia
2 DONOSTIA ZINEMALDIA
3 EUSKADIKO FILMATEGIA
4 ZINEMA, 2 ARETOA

### 3

1 TABAKALERAKO BULEGOA
2 HIRIKILABS
3 LANTEGIA
4 EKOIZPENA
5 ESTUDIOAK
6 K ARETOA
7 ZINEUSKADI
8 ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA
9 IMPACT HUB DONOSTIA

### 4

1 KUTXA KULTURGUNEA
2 ZABALTZA

### 5

1 PRISMA
2 TERRAZA
3 JATETXEA

Tabakalera kultura garaikideaz gozatzeko espazio publikoa da. Sarrera doako du.

TABABALERA

KULTURA
GARAIKIDEAREN
NAZIOARTEKO
ZENTROA

## ORDUTEGIA

| ZENTROA | UBIK | ERAKUSKETAK |
|---|---|---|
| Astelehenetik ostegunera: **08:00 - 22:00** | **Sorkuntza liburutegia** | Asteartetik ostegunera: **12:00 - 20:00** |
| Ostirala: **08:00 - 23:00** | Asteartetik larunbatera: **10:00 - 14:00** **16:00 - 20:00** | Ostirala: **12:00 - 21:00** |
| Larunbata: **10:00 - 23:00** | Igandea eta jaiegunak: **10:00 - 14:00** | Larunbata: **10:00 - 21:00** |
| Igandea eta jaiegunak: **10:00 - 22:00** | | Igandea eta jaiegunak: **10:00 - 20:00** |

**+Info:** info@tabakalera.eu · 943 11 88 55 · Andre zigarrogileak plaza 1,
20012 Donostia / San Sebastián · Gipuzkoa

**tabakalera.eu** **#gozatutabakalera**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

DSS2016.EU